

Erlea Maneros Zabalak hartuko du Ibon Aranberriren lekukoa San Telmo Museoaren Museo Bikoitza programan

Aranberrik Maneros Zabala hautatu du programarako, besteak beste, “artxibo eta hari ezberdinak gurutzatuz irudikari berriak sortzeko erakutsi duen trebeziarengatik” eta bere praktika ongi egokitzen delako museoaren konplexutasunera

Gainera, Ibon Aranberrik “Itzal-marra” instalazioaren argitalpen proiektua aurkeztu du, artista liburu forma izango duena eta bere lanaren zikloari amaiera emango diona

San Telmo Museoak iragarri du Museo Bikoitza esku-hartze programaren hurrengo artista gonbidatua Erlea Maneros Zabala izango dela, Ibon Aranberrik hala hautatuta. Aranberri izan da programaren lehen edizioako artista gonbidatua eta ekainean aurkeztu zuen bere lanaren emaitza: *Itzal-marra* instalazio bikoitza.

Museo Bikoitza programaren ezaugarrietako bat da edizio bateko artistak hurrengo ediziorakoa gonbidatzen duela proiektuan parte hartzera. Hala, Aranberrik Maneros Zabala hautatu du, beste arrazoien artean, bere ibilbidean zehar egin dituen ikerketak eta erabilitako teknikak ongi egokitzen direlako museoaren konplexutasunera, artxibo eta hari ezberdinak harremanetan jarritz irudikari berriak sortzeko erakutsi duen gaitasunarengatik, eta museotik urrun bizitzeak emaitza aberastu dezakeelako.

Erlea Maneros Zabala aukeratzeko motibazioak Ibonen hitzetan:

“Museo Bikoitza programak San Telmo Museoaren funtsak, museologia eta museoaren testuingurua hartzen ditu oinarritzat, gonbidatutako artistak horietatik egokitu dezan lan berria. Halako eginbeharrari ekiterakoan ezinbestekoa izan zait hutsetik abiatzea. Museoa bere orokortasunean ezaguna izanik ere, barne edukietan eta garaian garaiko irizpideen arabera pilatutako geruzek ematen diote berezko ezaugarria.

Hortik, museoa barnetik arakatu eta mamia hobeto ezagutzea izan da nire egitekoa. Museoaren eraikin fisikoaz harago, bere muga eta jabetza materialak aztertzea egokitu zait, San Telmok dituen biltegi eta pilatutako multzo anitzak erlazioan jartzea.

Museoaren ertzak eta kategoria desberdinak lausotu egiten dira eremu horietan, zer den ondare, zer bilduma, bilduma noiz den artistikoa, noiz etnografikoa, noiz duen kultura materialean oinarritutako interesa, eta noiz den hala-nola erabilitako materialen pilaketa soila. Zuzenean edo zeharka hasierako hiru ardatz horiek nahastuz joan dira nire ekarpenean.

Asier Mendizabal artistak bere garaian museotik ernaldutako lanaren bidezko elkarrizketatik jorratutako bidetik dator Museo Bikoitza programaren eredua. Programaren lehen artista izatea suertatu zait, eta ezinbestean neurea bilakatu da aurrerantzean etor daitekeenaren entsegu modukoa. Haserako jardun honetan, emaitza sortzeaz gain programa beraren moldeak dira eraikiak, hainbestean.

Hortik, urtean behineko artista berriro hastea baino, bat eta bestearen arteko transmisioak izan dezake garrantzia. Aurrikuntza eta ikuspegiak partekatzea eta, era berean, diferentziak markatzea. Museoaren gorputza bera izanik ere, bakoitzaren begirada eta subjektibitateak emango dio esanahi berezia.

Halaberrez datoz galdera nagusiak. Zer da museoa gaur egun? Nola begira diezaiokegu iraganari gaur eguneko optikaz? Garaia eta funtzioa irudikatzeaz gain zer esaten digute gordetako materialek?

Eginkizun honetan, ez da batere erraza datorren artista izendatu eta testigua pasatzea.

Formatua beraren beharrianak hartu ditut batez ere aintzat horretarako. Izan ere, Museo Bikoitza programaren baitan artista bakoitzaren ekarpena, artista batetik bestearengana gauzatu daitekeen transmisioak osatu eta indartu dezake hein handi batean.

Erlea Maneros Zabala artista proposatzerakoan ez dut zalantzarik izan. Erlearen ibilbide sendoa nabarmena izateaz gain, bere praktika luzean garatutako ikerketa eta teknikak ederki egokitzen dira San Telmo Museoaren egitura konplexu eta ugarietara. Bere hainbat lanen bidez artxibo eta hari ezberdinak gurutzatuz irudikari berriak sortzeko erakutsi duen trebezia nabarmentzekoa da.

Neronek markatutako hurbiltasunaren ondoan, geografikoki urrun bizi den artista da Erlea. Ongi ezagutzen du ordea Euskal Herriko paisaia kulturala, iragana eta oraina. Ziur naiz distantzia horrek ongi funtzionatuko duela San Telmoren baitan, eta emaitza esanguratsuak emango dituela, sarri bertan gabiltzanok ohartzen ez ditugun kodeak azaleratzeko.”

Erlea Maneros Zabala (Bilbo, 1977)

Erlea Maneros Zabalaren lanak irudien sorkuntzaren baldintzak eta ondorioak aztertzen ditu, haiek sortutako testuinguruak eta zabaltzeko erak landuz. Bere lanak planteatzen dituen gaiak aurki daitezke, batetik, abstrakzio lengoaien akademizazioan; bestetik, autoretzaren nozioan, eta baita ere, artisautzaren eta masa produkzioaren (prozesuan baliabide mekanikoak erabiltzen dituen) arteko harremanean.

Erlea Maneros Zabalak Glasgow-eko Arte Eskolan eta Kaliforniako Arte Inститutuan ikasi zuen, eta Joshua Treen egiten du lan, Kalifornian. Bere lana erakunde ugarian erakutsi du, besteak beste, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madril), Museo Experimental El Eco-n (Mexiko

hirian), REDCATen (Los Ángeles), Guggenheim-en (Bilbo), CAPC Musée d'Art Contemporain-en (Bordele) eta Bombas Gens Centre d'Art-en (Valentzia).

Horrez gain, San Telmo Museoarekin ere izan du lotura; izan ere, 2014an ikusgai egon zen *Suturak* Euskal Herriko artista garaikideen erakusketa kolektiboan parte hartu zuen eta bertan izan zen Gure Artea 2018 saria jasotzen.

***Itzal-marra* argitalpena**

2019/2020 edizioko artista aurkeztearekin batera, Ibon Aranberrik *Itzal-marra* obrarekin lotutako argitalpenaren proiektua aurkeztu du, bere esku-hartzea borobiltzeko sortu nahi izan duena.

Argitalpena artista liburua izango da, formatu handikoa eta edizio mugatukoa. Abiapuntua *Itzal-marra* duen izaera geometriko eta grafikoa izango da, haren jarraipen modura, eta proiektuaren prozesua islatuko du liburuaren formaren, argazkien, testuen eta diseinuaren bidez.

Horretarako Aizpea Leizaolaren lankidetzat izan du Ibonek testugintzan, Joaquín Gáñezena diseinuan eta José Luis López de Zubiriarena argazkietan.

Artista liburua sortze fasean dago eta urtea amaitu baino lehen amaituko du. Horietako ale batzuk museoko liburutegian kontsultatzeko aukera egongo da.

Museo Bikoitza programa

2018an jarri zuen martxan San Telmo Museoak Museo Bikoitza programa, Asier Mendizabalen ideia batetik abiatuta. Aldizkako esku-hartzeen programa bat da urtero gonbidatutako artista batek egingo duena, eta museoarekin lotuta lan egingo du artista horrek proiektu berri baten produkzioan. Lan horren emaitza urtebetez egongo da erakusketa-programaren barruan, eta azkenik museoaren arte-bildumari gehituko zaio, egungo une bakoitza San Telmoko bildumaren ondarrera eta kontakizunera gehitzeko premia adieraziz, premia hori ordeztu gabe, betiere.

Asier Mendizabalek, proiektuaren ideiarekin sortzaileak gonbidatu zuen lehen artista, Ibon Aranberri, eta *Itzal-marra* instalazio bikoitza izan da lan horren emaitza, gaur egun museoko klaustroan eta oroitarrien biltegian ikus daitekeena.

Programa honen metodologiaren arabera, artista bakoitzak, gutxi gorabehera 6 hilabete izango ditu ikerketarako eta proposamena aurkezteko, eta beste horrenbeste proiektua gauzatzeko. Amaitutako proiektua museoan instalatuko da, egungo ibilbide museografikoaren barruan edo adostutako gune batean, eta proiektua jendaurrean erakutsiko den urtean, hurrengo edizioko artista hautatu eta lana koordinazioaren konpromisoak bere gain hartuko ditu gonbidatutako pertsonak. Proiektuaren erakustaldi publikoa amaitutakoan, museoaren bilduman txertatuko da produzitutako obra.

Erlea Maneros Zabala es la artista elegida por Ibon Aranberri para la segunda edición de Museo Bikoitza, programa de intervenciones del Museo San Telmo

Aranberri ha elegido a Maneros Zabala, entre otras razones, por su “destreza para crear nuevos imaginarios entrelazando diversos archivos e hilos”, y porque su práctica se adapta bien a la complejidad del museo

Además, Ibon Aranberri ha presentado el proyecto de publicación de “Línea de sombra”, que tendrá forma de libro de artista y con la que cerrará el ciclo de su instalación

San Telmo Museoa ha anunciado que Erlea Maneros Zabala será la artista que realizará una intervención en el museo en el marco de la segunda edición de Museo Bikoitza. Maneros Zabala ha sido invitada a participar por Aranberri, el primer artista invitado del programa que ya presentó en junio el resultado de su trabajo: la instalación *Línea de sombra*.

Una de las características principales del programa Museo Bikoitza es que la persona invitada a participar en una edición es propuesta por el o la artista de la anterior edición. Así, Ibon Aranberri ha elegido a Erlea Maneros Zabala, entre otros motivos, porque las investigaciones realizadas y técnicas utilizadas durante su carrera se adaptan a la complejidad del museo, por su capacidad de crear nuevos imaginarios relacionando diferentes hilos y archivos, y porque su visión del museo desde la distancia (vive en el extranjero) enriquecerá el resultado.

Estos son los motivos en palabras de Ibon:

“La base del programa Museo Bikoitza la constituyen los fondos, museología y contexto del Museo San Telmo, de manera que quien recibe la invitación crea su obra a partir de esos elementos. A la hora de comenzar en esa labor ha sido fundamental para mí arrancar desde cero. A pesar de que en general el museo era conocido para mi, las capas acumuladas según el contenido interno y criterios de cada momento le han conferido unas características propias.

Así, mi labor principal ha sido explorar el museo desde dentro y conocer mejor el contenido. Más allá del edificio físico, he analizado sus límites y posesiones materiales, relacionando los almacenes de San Telmo y los diversos fondos apilados.

En esos ámbitos los límites y categorías del museo se difuminan, qué es patrimonio y qué colección, cuándo la colección es artística, cuándo etnográfica, cuándo tiene un interés basado en la cultura material, y cuándo es una acumulación de materiales realizada arbitrariamente. Directa o indirectamente, esos tres ejes se han ido entrelazando en mi aportación.

El modelo del programa Museo Bikoitza viene de las conversaciones vinculadas al trabajo que en su día realizó el artista Asier Mendizabal partiendo del contexto del museo. Me ha tocado ser el primer artista del programa, y, necesariamente, mi paso se ha convertido en una especie de ensayo para lo que está por llegar. Así, en esta participación, además de crear un resultado, de alguna manera también se han creado los moldes del mismo programa.

Por ese motivo, más que un nuevo comienzo cada año, lo importante puede ser la transmisión entre una participación y la siguiente. Compartir los descubrimientos y puntos de vista, y al mismo tiempo, marcar diferencias. Siendo la estructura del museo la misma, la mirada y subjetividad de cada persona le dará un significado único.

Las principales preguntas vienen dadas. ¿Qué es el museo hoy en día? ¿Cómo podemos mirar al pasado desde una óptica actual? Además de reflejar un tiempo y una función, ¿qué nos cuentan los materiales guardados?

En esta tarea, no ha sido nada fácil nombrar a la siguiente artista y pasar el testigo.

Para ello, sobre todo, he tenido en cuenta las necesidades del formato. No en vano, en el programa Museo Bikoitza, en gran medida, la aportación de cada artista puede verse completada y reforzada por la transmisión de una edición a otra.

No he tenido dudas a la hora de proponer a la artista Erlea Maneros Zabala. Además de que su sólida trayectoria es notable, las investigaciones realizadas y técnicas abordadas en su práctica se adaptan bien a las complejas y numerables estructuras del Museo San Telmo. Es destacable la destreza demostrada en varios de sus trabajos para crear nuevos imaginarios entrelazando diversos archivos e hilos.

En comparación con la cercanía que he marcado yo, Erlea es una artista que vive lejos geográficamente. Sin embargo, conoce a la perfección el paisaje cultural de Euskal Herria, su pasado y presente. Estoy seguro de que esa distancia funcionará bien en San Telmo, y que aportará resultados relevantes, para sacar a relucir códigos que, a menudo, los que estamos aquí no percibimos.”

Erlea Maneros Zabala (Bilbo, 1977)

El trabajo de Erlea Maneros Zabala analiza las condiciones y los efectos de la producción de imágenes, abordando los contextos generados y los modos de distribución. Los problemas planteados por su trabajo se pueden encontrar en la academización de lenguajes de abstracción, la noción de autoría y las relaciones establecidas entre la artesanía y la producción en masa mediante el uso de recursos mecánicos en los procesos de producción.

Erlea Maneros Zabala estudió en la Escuela de Arte de Glasgow y el Instituto de las Artes de California, y vive y trabaja en Joshua Tree, California. Su trabajo ha sido exhibido en instituciones como el Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madrid), Museo Experimental El Eco

(Ciudad de México), REDCAT (Los Ángeles), Museo Guggenheim (Bilbao), CAPC Musée d'Art Contemporain (Burdeos) y Bombas Gens Centre d'Art (Valencia), entre otros.

Asimismo, también ha tenido relación con el Museo San Telmo, ya que participó en la exposición Suturak (2014) y recibió en este museo el premio Gure Artea 2018.

En cuanto a Museo Bikoitza, Erlea ha iniciado el trabajo de campo que le llevará a presentar el proyecto de su propuesta al museo dentro de unos seis meses aproximadamente.

Publicación *Línea de sombra*

Además de anunciar el nombre de la artista para la edición 2019/2020, Ibon Aranberri ha presentado el proyecto de publicación vinculado a *Línea de sombra*, que ha querido crear para cerrar su ciclo.

La publicación tendrá forma de un libro de artista de gran tamaño y de edición limitada. El punto de partida será el carácter geométrico y gráfico de la obra, a modo de continuación, y reflejará el proceso de creación de *Línea de sombra* a través de la forma del libro, sus textos, fotos y diseño.

Para ello Ibon ha contado con la colaboración de Aizpea Leizaola (textos, junto con Ibon), Joaquín Gáñez (diseño) y José Luis López de Zubiria (fotografías).

El libro de artista está en proceso de creación que finalizará antes de fin de año. Cuando se produzcan los ejemplares, estarán a disposición del público, para ver y consultar, en la biblioteca del Museo San Telmo.

Museo Bikoitza

El Museo San Telmo inició el programa Museo Bikoitza en 2018 a partir de una idea de Asier Mendizabal. Es un programa de intervenciones periódicas en el museo que realizará anualmente un/una artista invitado/a, quien trabajará en conexión con el museo en la producción de un proyecto inédito. El resultado de ese trabajo formará parte del programa expositivo durante un año para finalmente añadirse a la colección de arte del museo, señalando, aunque no supliendo, la necesidad de incorporar cada momento presente al patrimonio y al relato de la Colección de San Telmo.

El propio Asier Mendizabal fue el que invitó al primer artista, Ibon Aranberri, y la instalación doble *Línea de sombra* fue el resultado de ese año de trabajo, que ahora se expone tanto en el claustro del museo como en el almacén de lápidas.

La metodología del proyecto plantea que cada artista contará con seis meses aproximadamente para la investigación y presentación del proyecto, y otro tanto para ejecutarlo. Al finalizarlo, la obra resultante se instalará en el museo, dentro del recorrido museográfico existente o bien en un espacio acordado, y durante el año en que este permanezca expuesto, la persona invitada pasará a asumir los compromisos de la coordinación de la edición siguiente. Una vez finalizada la exhibición pública del proyecto, la obra producida se incorporará a la colección del museo.